

## AMETSETAN ZEHAR

Bazen behin, Miren izeneko neskatu bat, 8 urtekoa, eta Mundakan bizi zen. Bazuen lagun bat, Mikel izeneko, eta nahiz eta batzuetan liskarrak eduki, oso ondo moldatzen ziren elkarrekin. Biak ziren bihurriak, irudimentsuak, eta beti zeuden elkarri imajinatzen zutena kontatzen.

Egun batean, eskolara joan baino egun bat lehenago, gauean, pelikula bat ikusten geratu ziren berandu arte elkarrekin. Hurrengo egunean eskolako autobusa hartzerakoan, biak, oso nekatuta zeuden. Eskolara iritsi ziren eta historiako gelara sartzeko ordua iritsi zen. Irakaslea gelara sartu zen eta zera esan zuen:

-Gaur Koloni buruzko azkenengo klasea izango da; orduan, zerbait berezia prestatu dizuet -Argiak amatatu, pertsianak itxi eta pantaila digitala piztu zuen-. Lehenengo, Kolonen espedizioaren itsasontziak erakutsiko dizkizuet, eta zer aurkitu zuten ere azalduko dizuet. Hasiko naiz; hauek La Pinta...

Mikeli begiak ixten ari zitzaizkion, eta Mirenek burua mahai gainean jarri zuen eta, zurrungaka hasita, ametsen mundu zabalera sartu ziren... Gela txiki batean zeuden, ate bat besterik ez zegoela; orduan esan zuen Mirenek:

-Non gaude?

Eta erantzun zion Mikelek:

-Ez dakit, baina ate bat dago; zeharkatu egin behar genuke. Zer deritzozu?

-Oso ideia ona!

Eta atea zeharkatu zuten.

-Non gaude?

Galdetu zuen Mikelek.

-Itsasontzi baten gaudela uste dut.

Inguruan, beste bi itsasontzi zeuden. Mikel itsasontziaren alde batera joan eta beste itsasontzia begiratu zuen. Orduan konturatu zen beste itsasontzian "La Pinta" jartzen zuela. Bira eman, beste aldera joan eta beste itsasontzia begiratu zuen; itsasontzi horretan berriz, "La Niña" jartzen zuen. Orduan esan zuen:

-Badakit non gauden!!! Kolonen itsasontzian gaude!!!

Eta arrazoia zuen; "La Santa María" itsasontzian zeuden. Ingurura begiratuta, itsaso zabala eta marinel pila ikusten zituen.

Itsasontziaren erdian jarri ziren; eta bat-batean, marinel batek, Mikel ia-ia zapaldu egin zuen eta ez zen konturatu ere egin. Mikelek susto handia hartu zuen eta garrasi egin arren inork ez zuen begiratu. Orduan Mikelek esan zion Mireni:

-Jende hau, ez daki gu hemen gaudenik, orduan okerkeria bat egitea pentsatu dut: lema mugitzen badugu, ez dute Amerika aurkituko eta beste leku batera helduko dira.

-Zein ideia ona izan duzun, Mikel!

-Beno, ez da hainbesterako; baina orain okerkeria egiten hasi behar gara.

Miren iritsi zen lehena lemaraino eta lema mugitzen hasi zen. 30 gradu ezkerrera mugitu zuten eta nahikoa izango zela pentsatu zuten; orduan, lema mugitzeari utzi zioten.

Mirenek pentsatu zuen lema mugitzearekin bakarrik ez zela nahikoa izango, eta esan zion Mikeli:

-Eta Kolonen kamarotean sartzen bagara eta mapa guztiak izorratzen badizkiogu?

-Oso ideia ona, Miren!

Orduan, bi ate ikusi zituzten; ez zekiten zein ate zen Kolonen kamarotea zabaltzen zuena. Horregatik esan zion Mirenek Mikeli:

-Zein zabalduko dugu?

-Nik ezkerrekoa zabalduko nuke.

-Ba, orduan aurrera!

Zabaldu egin zuten; eta barrura sartu ziren. Ez zuten ezer ikusten; argi txiki bat piztu zen arte. Argiaren inguruan, gauza asko zeuden: tutuak, mikroskopioak, nahasteak, gai kimikoak...

Mirenek, hau dena ikusita, zera esan zion Mikeli:

-Ematen du laborategi batean gaudela.

-Bai, nik ere hori uste dut!

Biak isilik geratu ziren eta bat-batean, esku bat ikusi zuten, eta gero aurpegira begiratu zioten elkarri. Ile kizkurra eta begi ilunak zituen; eta galdetu zuen Mikelek:

-Eta nor da neska hori?

-Ez dakit! Nor izan daiteke?

-Badakit, Marie Curie izan liteke.

-Ba, orduan, Parisen gaude.

-Egia.

Eta Marie Curiek zer egiten zuen begira geratu ziren. Nukleoi bat hartu eta esperimantu batera bota zuen. Orduan, hauxe aipatu zuen Mirenek:

-Nukleoi bat bota du. X izpiak asmatzen egongo da!

-Arrazoi duzu. Eta okerkeria bat egiten badugu?

-Ondo iruditzen zait, baina zein gaiztakeria egingo dugu?

-Uraneo zati hori esperimentera botatzen badugu?

-Ideia ona da. Arriskutsua izan daiteke, baina egin ahal da, beraz, aurrera!

Biak batera joan ziren beste aldean zegoen mahaira. Pote baten barruan zegoen uraneo lagina hartu eta, Marie Curieren ondora joanda, esperimentera bota zuten zatia.

Bat-batean, burbuila batzuk irteten hasi ziren eta inbutu batzuetara ailegatu ziren. Inbutuak bota eta likidoekin nahastu zen eta orduan... leherketa handi bat izan zen. Mirenek begiak itxi zituen eta konortea berreskuratzen zenean esan zion Mikeli:

-Ondo al zaude?

-Bai, lasai. Saiatu gaitezen kea kentzen.

Eta eskuak astintzen hasi ziren.

Lainoa kendu zutenean eta ingurura begiratu, ez zuten laborategia ikusten, kirol estadioa zeukaten begi aurrean. Jendez beteta zegoen eta ez zekiten zer egin. Guztiz lotsatuta zeuden. Miren lasterka hasi zen eta Mikelek jarraitu egin zion:

-Nora zoaz?

Galdetu zion Mikelek.

-Nora joango naiz, ba, ezkutatzera.

Ate polit batetik irten ziren. Ez zekiten zer zegoen hor atzean. Bat-batean, bandera batzuk ikusi zituzten, denak ziren selekzioetakoak; bat izan ezik, batek olinpiar jokoetako ikurra zuen eta. Biak begiratu zioten elkarri eta esan zuten batera:

-Olinpiar jokoetan gaude.

-Bai, eta zer?

Erantzun zuen antolatzaileetako batek.

-Baina, ikusten al gaituzu?- galdetu zion Mirenek- Entzuten al gaituzu?

-Ba, horixe ikusten zaitudala. Oraindik ez al dakizu magia ez dela existitzen?

-Bai, bai. Eta hau zein lasterketa mota izango da?

-100 metro lasterkako finala, eta faborittoa Usain Bolt da.

Mirenek, azalpenak entzunda, estadiora begiratu zuen, eta gradak baino gorago, 2012 jartzen zuela ikusi zuen. Orduan, esan zion Mikeli:

-Mikel, Londresen gaude.

-Zer diozu?

-Bai, Londreseko Olinpiar Jokoetan gaude eta 100 metro lasterkako finala izango da laster.

-Bai, ongi! Eta nor da faborittoa?

-Usain Bolt.

-Berarekin hitz egitera joango gara?

-Ideia ona!

Jamaikako bandera zegoen tokira joan eta Usain Bolti hitz egiten hasi ziren.

-Kaixo.

-Kaixo. Sinadura bat, galdera pare bat eta ospa.

-Bai, bai.- Mikelek koaderno hartu eta berari eman zion- Nola zara hain arina?

-Entrenamendu kontua da.

-Zer egingo duzu finala irabazten baduzu?

-Olinpiar Jokoetako logoa tatuatuko dut besoan Jamaikako koloreekin.

-Eta horrekin zer erakutsi nahi duzu?

-Nolako maitasuna diodan Jamaikari.- Pazientzia galtzen hasita zegoen Usain Bolt-  
Kirolari gehienek egiten dutena da. Eta orain utzi bakean. Konzentratu egin behar naiz.

Mikelek ez zion kasurik egin eta hitz egiten jarraitu zuen.

-Erreza izan al da finalera iristea? Zenbat lasterketa egin dituzu? Zein izan da aurkaririk gogorrena?

-Joan zaitezte antzarrak ferratzera!

Esan zuen zakar Usain Boltek. Mikel mindu egin zen, baina faborittoa ez zuen min egiteko asmorik. Mikel guztiz haserre jarri zen eta gaiztakeria bat egitea pentsatu zuen. Lasterketa hasi behar zenean, karrilaren erdialdean jarri eta Bolti zangoz zangoz ipintzea etorri zitzaion burura.

Lasterketa bost minutu barru hasiko zela esan zuten megafoniatik, eta denak prestatzen hasi ziren; Mikel ere karrilean jarri zen. Ez zen inor konturatu hor zegoenik, denak lasterkariei begira zeudelako; eta bat-batean lasterketa hasi zen. Lasterkariak geroz eta hurbilago zeuzkan Mikelek eta 25 metrotara zeudenean Mirenek beraien irakaslea ikusi zuen gradetan, Mikeli garrasika:

-Mikel, Miren!

Eta segituan biak esnatu ziren.

